

**COVID-19ren aurrean,
PREBENTZIO NEURRIAK:
KONTINGENTZIA
PLANA
NORMALTASUN BERRIAN**



**MEDIDAS DE PREVENCIÓN
frente a COVID-19:
PLAN DE CONTINGENCIA
EN LA NUEVA NORMALIDAD**

AURKIBIDEA

0. SARRERA. LAGUNTZA- ETA JARRAIPEN- BATZORDEA

A) 1. AGERTOKIA

1. Irakaskuntza berrantolatzea

Kontaktuak mugatzea:

- 1.1. Sarrera eta irteeren kudeaketa
- 1.2. Ikasgelak, informatika-gela, musika-gela, psikomotrizitate-gelak, gimnasioa, liburutegia, areto-nagusia eta laguntza-gelak
- 1.3. Barneko joan-etorriak
- 1.4. Jolastokia eta atsedenaldiak
- 1.5. Komunen erabilera
- 1.6. Jantokiak
- 1.7. Eskola garraioa
- 1.8. Goiz Txokoa eta eskola orduz kanpoko ekintzak

2. Giza-baliabideak

3. Baliabide materialak

4. Higiene pertsonalerako prebentzio-neurriak

5. Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena

6. Informazioa eta komunikazioa

7. Kasuen kudeaketa

- 7.1. Isolamendu-gelak
- 7.2. Zer egin kasu baten susmoa izanez gero, hau da sukarra izanez gero?
- 7.3. Zer egin ikasleren batek COVID-19 kasuren batekin kontaktua izan duenean?
- 7.4. Zer egin kasu bat baieztatzen denean?
- 7.5. Bereziki sentikorrak diren langileen balorazioa (TES).

B) 2. AGERTOKIA

C) 3. AGERTOKIA

ERANSKINAK / ANEXOS

0. SARRERA. LAGUNTZA- ETA JARRAIPEN- BATZORDEA.

2020-2021 ikasturtearen hasierari begira, eta osasun-egoeraren arabera, hezkuntza-jarduera ondoko hiru jokalekuetan gara zitekeen:

- 1. agertokia: aurrez aurreko irakaskuntza-jardueraren garapen normalizatuak dakar.
- 2. agertokia: bitarteko egoera bat, ikastetxeak irakaskuntza-jardueraren antolamendu malgu batera behartzen dituen, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko, etapa, ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsiz.
- 3. agertokia: konfinamendua eta hezkuntza-jarduera ez-presentziala eskatzen ditu.

Laguntza- eta jarraipen-batzordea sortu da: ikastetxeko zuzendaria (Marga Zinkunegi), segurtasuneko laguntzailea (Maribel Encabo), ama bat, Ordezkaritza Organo Goreneko kide eta IGEko partaidea (Nerea Tapia), Berritzeguneko erreferentziako pertsona (Leire Mitxelena) eta ikastetxeko ikuskatzailea (Maria Jesús Fernández).

A) 1. AGERTOKIA: PRESENTZIALA

“ Normaltasun” egoeratik, hurbilena dena, ikastetxearen ohiko funtzionamendutik hurbilena dagoena. Kasu honetan, gaur egun, hurrengo neurriak hartuko dira:

1. Irakaskuntzaren berrantolaketa:

Kontaktuak mugatzea:

Elkarbizitza-talde egonkorak antolatu dira (ahal izan ditugun gehienak):

-Haur hezkuntzan, adin bakoitzak, bi talde egonkor osatuko ditu. Talde horien partaideak izango dira ikasleak, tutorea, sartzan diren espezialistak (musika, soinketa, pt-a, erlijioa, laguntza-zerbitzukoak). Bi sektore ezberdindu dira: 2 urte, sektore bat, eta, 3, 4 eta 5 urte, beste bat. Guztira, zortzi talde egonkor.

-LHn, maila bakoitzean 2 talde egonkor egin dira, eta, horien barruan talde-burbuilak. Kontuan hartuko dira talde horietan sartzan diren espezialistak, erlijioko irakaslea eta laguntza-zerbitzukoak.

Guztira: 20 Elkarbizitza-talde egonkor ditugu. Eraikuntza bi sektoreetan banatu da: bat, 1., 2. eta 3.mailak, eta, bigarrena, 4., 5. eta 6.mailak.

Sektore hauen artean, kontakturik ez egoteko, antolakuntza zehaztuko da.

Geletako “talde burbuilen” zerrendak eranskinetan atxikituta daude (2. eranskina)

Ikasleen sarrerak eta irteerak mailakatu egin dira. Ahalik eta sarbide gehien erabili dira talde egonkorren interakzioa saihestuz. Informazioa alde zurretik eman zaie familiei, eta ikastetxearen inguruak pilaketak saihesteko, itxaron-guneak zehaztu dira

- Garraiatuak:

Hiru txanda egingo dira. Ikasle garraiatuak, eserleku finko bat izango dute, eta, HHko patioan kokatuko dira, haientzat esleitutako espazioetan.

- HHn:

2 urte eta 3 urteak, aparkalekuko ondoko atetik sartuko dira. Bi urtekoak ordu laurden bat beranduago sartuko dira, eta modu horretan bi eta 3 urtekoak ez dute bat egiten.



4 urte eta 5 urte: Patioko hesitik sartuko dira, eta, haiei esleitutako espazioetan itxaron beharko dute, HHko aterpean. Gero, txandaka igoko dira, sarrerako ateraino.



- LHn:

Eraikinaren kanpoaldean, itxarongo dute familiek eta, ezingo dira patioan sartu, lehenengo mailakoak izan ezik. Tutoreak patioan egongo dira haien geletako espazioetan kokatuz. Ikasleak

sartu eta haien tutorearen inguruan kokatuko dira. Lehenengo bi asteetan, ordu laurden bat lehenago izango dira goizeko sarreran ikasleak ohitura har dezaten.

1.2. Ikasgelak, informatika-gela, musika-gela, psikomotrizitate-gelak, gimnasioa, liburutegia, areto-nagusia eta laguntza-gelak

- Laborategia ezin da erabili, neurri-higienikoak betetzeko aukera ez dagoelako, eta, desdoblea egiteko baliabide pertsonalik ez daudelako momentuz.
- Liburutegia, erlijio-klaseak emateko erabiliko da. Bertako, liburuen mailegua geletako tutoreek kudeatuko dute.
- Informatika gela, 4. Mailako ikasleek erabiliko dute gaitasun digitala areagotzeko.
- Ahal den neurrian, mahaiak eta espazioak paperik edo bestelako objekturik gabe mantentzea baloratu da, eguneroko garbiketa errazteko.
- Materiala eta tresnak partekatzea saihestuko da, eta, saihestu ezin bada, erabiltzaileek (irakasleek edo ikasleek) erabili ondoren garbituko dute. Ikastetxeko espazio komunetan pertsonak ez elkartzeko ezarri da: bilerak distantzia mantenduz eta maskara duten 10 pertsonatik gorakoak ez dira izango. Ikasturtearen hasieran eskolaz kanpoko jarduerak ez antolatzea erabaki da (Bidelaguna programa izan ezik)

1.3. Barneko joan-etorriak

- Taldeek ikastetxean egiten dituzten joan-etorriak ahalik eta gehien murriztea ezarri da. Hezkuntza bereziko ikasleen eta bizikidetzako egonkorreko taldeen joan-etorriak antolatzerakoan kontuan hartu da beste talde batzuekin ez elkartzeko.
- Zirkuitu ohikoenak ezarri eta seinaleztatu dira (kanpotik-ikasgela-tailerra, ikasgela-jolastokia, ikasgela-bainua): korridoreak, eskailerak, komunetan...
- Korridoreetan multzokatzeak eta elkarrizketak saihestea ezarri da

1.4. Jolastokia eta atsedendialdiak

- HHko patioa, banatu egiten da sarrera eta irteerak egiteko, eta familiek itxaroteko ere hainbat partzela zatikatu dira. Jolasgaraietan ere, espazioak banatzen dira, elkarbizitza talde egonkorren arteko kontaktua mugatzeko. Partzelak seinalatzeko zintak jarri dira.
 - LHko patioa ere, banatzen da sarrera irteerak egiteko. Jolasgaraiak eta jangelako tartearak egiteko ere, banatu egiten da.
 - Korridore eta eskaileretan zirkulazioa bideratzeko zintak jarri dira lurrian.
 - Beste jolastoki- eta atsedendialdiak batzuk identifikatu dira, leku faltan edo eguraldi txarra dagoen momentuetarako (gimnasioa, arkupeak). Jarri dira ordutegiak eta tokiak
-
- Distantziak errespetatzeko eta eskuak garbitzean pilaketak saihesteko, sarrerako eta irteerako zirkulazioa antolatu da.
 - Zer joko, altzari eta objektu erabil daitezkeen zehaztu da, eta, jangelakoei aukera eman zaie hauek erabiltzeko.
 - Kalera ateratzen diren ikasleek eskuak sarreran higienizatu beharko dituztela aurreikusi da

1.5. Komun erabilera

Modu honetan antolatu da:

- Hiru denbora-tarte markatu dira: saioaren lehenengo 20 minutuetan, 1. eta 4. mailetako ikasleak joango dira; hurrengo hogeit minutuetan, 2. eta 5 mailakoak; eta, azkeneko hogeit minutuetan, 3. eta 6. Mailakoak.
- Komunetako ateetan semaforo bat jarri da. Ikasleren batek beharra izango balu, komunera joateko aukera izango luke, betiere semaforoak esaten duenari kasu eginez.
- Kartelen bidez adierazi da okupazioa (semaforoa eta txandak) eta eskuak garbitzeko beharra.
- Xaboi likidoa, gelen banagailuak edo soluzio hidroalkoholikoak, eskuak lehertzeko papera eta paperontzi poltsadunak izan dira.
- Konkretaren eremu komunak ez partekatzea, itxaronaldian pertsonen arteko distantzia mantentzea eta atek ahal den neurrian irekita uztea ezarri da.
- Garbiketa-planean honako jarraibideak eman dira: garbitzeko, desinfektatzeko eta aireztatzeko lanen maiztasuna, eta paperontziak hustea.
- Komunak taldeka, korridoreka... esleitu dira, eta ikastetxeoak ez diren pertsonen ikasleek erabiltzen ez dituzten beste batzuk erabil ditzatela ezarri da.
- Soinetako saioak egin ondoren, ez dutzatzea erabaki da. Ikasleek toailetak erabiliko dituzte garbiketa egiteko, eta, kamiseta alduko dute.

1.6. Jantokiak

- Jangeletako eta jangeletako jankideen arteko gutxieneko distantzia 1,5 m-koa dela ziurtatzeko edukiera zehaztu da.
- Txandak antolatu dira: sarrerak, mahaikideak/mahaia, krokisak, langileak eta irteerak. Ibilbideak seinaleztatu dira, itxarote-ilara handiak saihesteko.
- HHko 5 urtekoak, haien eraikuntzako jangelan bazkaduko dute, bi txanda eginez.
- Komunetan aglomerazioak saihesteko eskuak garbitzea antolatu da
- Kontuan hartu da bizikidetzat-talde egonkorrek beren txanda eta espazioa dituztela,
- Otorduaren aurretik, bitartean eta ondoren, ikasleei segurtasun-distantziak eta hesi-keinuak errespetatzeko beharra gogoraraziko zaie.
- Azpimarratu behar da ezin direla janaria, ura, mahai-tresnak eta abar partekatu.
- Ikasleari janaria hartzen lagundu behar bazaio eta urrutze soziala betetzen ez bada,
- Langileek FFP2 maskara eramaten dute.
- Sietetan mantendu beharreko baldintzak ezarri dira: koltxoneten arteko distantziak eta maindireen garbiketa.

1.7. Eskola garraioa

Ikasle bakoitzak eserleku finkoa izango du, eta, denek eraman beharko dute maskarila. Eserlekuak modu honetan esleitu dira; aurreko eserlekuetan, HHko ikasleak eseriko dira. Ondoren LH1. zikloa, LH2. zikloa eta atzeko aldean LH 3. Ziklokoak.

Autobusak hiru txandak egiten ditu, eta, ondorioz lehenengo eta bigarren txandan etortzen diren ikasleak itxaron-tarte bar izaten dute ikas-ordutegia hasi arte. HHko patioan itxaron beharko dute, horretarako markatu diren espazioetan.

- Autobuseko monitoreak, garraiatutako ikasleen zerrenda eta eserleku-banaketa izango ditu.
- Jarraibideak eman dira eskola-garraioa garbitzeko, desinfektatzeko eta aireztatzeko txanda bakoitzaren aurretik, txanda batetik bestera eta txanda bakoitzaren ondoren, bai eta erabiltzaileen higiene pertsonala garbitzeko ere.
- Garraioa erabiltzen duten ikasle guztiak maskara erabiliko dute.

1.8 Goiz Txokoa eta eskola orduz kanpoko ekintzak

- Haurtzaindegia: hasiera batean zerbitzu hau ez da eskainiko, epidemia-egoera aldatu bitarte.
- Eskola orduz kanpoko ekintzak:

Ikasturte hasierako deialdian agertzen den gomendioa hau da:

“Ikasturtearen hasieran ikastetxean eskolaz kanpoko jarduerarik ez antolatzea gomendatzen da, harik eta ikasleak ikastetxera itzultzearen bilakaera, eskola- jardueraren kudeaketa eta garapena eta pandemiaren beraren bilakaera ikusi arte, kasuen trazabilitate hobea bermatzeko.

Unea iristen denean, zer baldintzatan antola daitezkeen jakinaraziko da; nolana ere, irizpide orokor gisa, ikastetxeko ohiko bizikidetzeta-taldee eusteari eta kontaktu fisikorik ez dakarten jarduerari lotuta egongo dira...” IGEko ordezkariekin egindako bilera batean erabaki zen, aurtan ez antolatzea, epidemia-egoeran aldatu arte.

2. Giza-baliabideak

Udaletxeak bi garbitzaile esleitu ditu, goizetan desinfekzio lanak egiteko. Bat, HHko eraikuntzan egoten da bi ordu t'erdiz, eta, bestea, LHn Hiru ordu t'erdiz.

Hezkuntzak, bi irakasleren esleitu ditu ikastetxean, 2/3ko lan jardunaldiarekin

3. Baliabide materialak

A) Higiene- eta urruntze-gomendioak betetzeko behar diren materialen inbentarioa egin da: gel hidroalkoholkoa, xaboa, NBE, garbiketa- eta desinfekzio-materiala, paperontziak, holtzak...

B) Horniduren arduradun bat izendatu da baliabide materialak eskuratzeko, kudeatzeko eta mantentzeko.

C) Gelen, paperaren eta paperontzien kokapena ezarri da krokis, zerrenda, plano eta abarretan, eta langileei horiek eskuratzeko moduaren berri eman zaie.

D) Kutsatuta egon daitezkeen hondakinak kudeatzeko gune espezifikoak jarri dira.

E) Espazio itxi bat dago, seinaleztatutako komun batetik gertu, pertsona sintomatikoentzako isolamendu-gelarako soilik erabiliko dena. Barruan, eskuak garbitzeko produktuak, papera, termometroa eta PPF2 maskarak izango ditu.

4. Higiene pertsonalerako prebentzio-neurriak

A) Informazio-kartelak jarri dira, batez ere eskuen higieneari, arnas etiketari eta segurtasun-distantziari buruzko eremu komunetan.

B) Disoluzio hidroalkoholikoaren banagailua, paperezko zapiak, estalkia eta pedala duen edukiontzia jarri dira sarbide- eta irteera-eremuetan, eta ikastetxeko gelak, eskuen higiene egokia bermatzeko.

C) Eskuak garbitzeko metodoari eta arnas etiketari buruzko informazioa eta prestakuntza eman dira. SPRL webgunean

D) Ikasleei higienari eta portaerari buruzko prebentzio-neurriak gogorarazteko Egunero ezarri dira, gela, ikastetxe eta adin bakoitzera egokituta.

E) Ikastetxera joan aurretik etxean bertan tenperatura hartzea eta $> 37^{\circ}$ sukarra eta Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle eta bestelako profesionalak ez joatea gomendatu eta jakinarazi da.

F) Covid-19 diagnostikoaren bidez isolatuta edo berrogeialdian dauden ikasleek edo irakasleek, sintomak dituen pertsonaren batekin edo Covid-19 diagnostikatuta dagoen pertsonaren batekin harreman estua izateagatik, ez dutela ikastetxera joan behar jakinarazi da

I) Ikasleek ikastetxera sartu aurretik eskuak nola higienizatu behar dituzten adostu da, hezkuntza-mailaren, kopuruaren edo autonomiaren arabera: gel-dosi bat isurtzen, Haur Hezkuntzan, bereziki edo ikasle ahulekin, ura eta xaboa erabilia....

G) Maskara erabiltzea derrigorrezkoa dela ikastetxeko langile guztientzat eta 6 urtetik aurrerako ikasleentzat espazio guztietan eta uneoro, nahiz eta pertsonen arteko distantziari eutsi jakinarazi da

H) Langileak Covid-19ren hedapenetik babesteko beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak identifikatu dira eta norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea eta horiek jartzea nahitaezkoa dela jakinarazi da.

5. Garbiketa, desinfekzioa eta aireztapena

Udaletxeak garbitasun zerbitzua erreforatzeko ordu gehiago eskaini ditu: HHn 2:30 ordu, eta, LHn 3:30.

Arreta berezia jartzen zaie erabilera komuneko eremuei eta ukipen-azalera ohikoenei: heldulekuak, altzariak, zoruak, telefonoak, etengailuak edo sakagailuak, barandak, mahaiak, ordenagailuak, saguak, telefonoak, inprimagailuak eta komunak. Garbitasuna egiten duten langile eta arduradunekin eguneroko lehentasunak adostu dira:

HHn: Bi psikomotrizitate gelan 2 aldiz garbitu erabili ahal izateko.

Komunak, hiru aldiz egunero.

LHn: Informatika gela eta gimnasioa egunero bi aldiz.

Aulkiak, mahaiak, ateko heldulekuak, ordenagailuen teklatuak eta saguak, fotokopiagailuak, ... bi aldiz egunero. Konpartitu behar den materialetan arreta berezia jarri da.

Komunak, hiru aldiz egunero.

Eskola materialak eta jostailuak aukeratu dira eta garbitzeko erreza diren materialak lehenestu dira.

- Garbitasun lanak egiteko erabiltzen diren produktuen egokitasuna aztertu da, batez era HHko ikasleen kasuan.
- Gela guztiak aireztatzen dira orduro.
- Ikasleak etxetik ekartzen dituzten gauzentzako, berariazko leku jakin batean jarriko dute.

Termometroen kokapena:

HHn:

- 1 jangelan.
- 1 Garbitzaileen aldagelan, beheko solairuan.
- 1 Isolamendu gelan.
- 1 Bi urtekoentzako

LHn:

- 1 jangelan.
- 1 atezaina eta garbitzaileentzat, beheko aldagelan.
- 1 isolamendu gelan
- 1 sarrerako komunean

Aireztapen-plan espezifiko bat ezarri da, ikasleek kudeaktuko dutena, hau da, ahal den neurrian, gelako leihoak irekita egongo dira. Eguraldi txarra egiten duenean, aire korronteak sahiesteko ahal dira itxi, baina saio bakoitza bukatu ondoren, ireki egin beharko dira eta 5 minutuz. Jantokian, eta eskola-garraioan berdin jokatuko dute.

Hondakinak kudeatzeko modu egokian zaborrontzi-pedalduna ezarri da gela guztietan bertan zapiak, maskarak, eskularruak botatzeko.

6. Informazioa eta komunikazioa

A) Sarbideetan Covid-19rekin bateragarriak diren sintomak dituzten pertsonei sartzen utzi ez zaie eta maskara nahitaez sartu behar duten informazio-kartelak jarri dira, segurtasun-distantziari eutsiz.

Eta eskuak garbitzea eremu komunetan, ikasgeletan, komunetan...

B) Saileko langileei, kanpoko langileei, langile konkurrenteei, ikasleei eta haien segurtasunari eragiten dieten informazioa, protokoloak eta erabakiak komunikatzeko moduak aurreikusi dira.

C) Laguntza- eta jarraipen-batzordearen/krisi-taldearen aldizkako bilerak ezarri dira, Covid-19rekin lotutako gorabeherak partekatzeko eta konpontzeko, ahal den neurrian.

D) Familiekin komunikazio-kanal arina ezarri da.

7. Kasuen kudeaketa

7.1 Isolamendu-gelak:

Bi isolamendu-gelak antolatu dira (bat HHn eta bestea LHn) COVID-arekin bateragarriak hainbat sintoma daude. Sukarra izatea, $>37^{\circ}$ koa, izango sintoma erabakigarriada gela horretara eramateko. Bertan, egon beharko du ikaslea, familia bila etorri arte.

Bertan termometroa eta desinfektatzeko materiala egongo da. Gela honetan egoten den bitartean, ahalik eta gauza gutxi ukitu behar dira. Semaforoa egongo da atean, eta, gorria egongo da desinfektatu arte.

7.2. Zer egin kasu baten susmoa izanez gero, hau da sukarra izanez gero?

Ikaslea denean:

- Nola hartu tenperatura? HHn gelan bertan hartuko dio irakasleak. LHn, diskrezioz jokatu beharko da, eta, horretarako ikasleari termometroa isolamendu-gelan hartuko zaio.
- Ikasleak $>37^{\circ}$ sukarra baldin badauka, isolamendu-gelara eraman behar du tutoreak, eta, ordutegian zehaztuta dagoen irakaslea geldituko da zaintzen. Tutoreak COVID arduradunari edo zuzendaritzari pasako dio abisua, eta, hauek familiekin jarriko dira harremanetan.
- Jangelan daudenean: maskarila jarri, eta, jangelako arduradunari esan. Isolamendu-gelara?

Irakaslea denean:

1. Bere egoera ikastetxeko zuzendaritzari edo COVID-19 arduradunari jakinaraziko dio, eta ordezkatu du, beharrezkoa bada. Higiene neurriak zorrotzuko dira haren esparruan.
2. Ikastetxea utzi eta etxera joango da.
3. Familia-medikuari deituko dio telefonoz, eta haren jarraibideak beteko ditu.
4. Ikastetxean informatuko du, informazio esanguratsua emanez, zuzendaritzako kideren bati.

Langileak:

Udaletxekoa, atezaina:

1. Bere egoera ikastetxeko zuzendaritzari edo COVID-19 arduradunari jakinaraziko dio. Higiene neurriak zorrotzuko dira haren esparruan.
2. Ikastetxea utzi eta etxera joango da.
3. Familia-medikuari deituko dio telefonoz, eta haren jarraibideak beteko ditu.
4. Ikastetxean informatuko du, informazio esanguratsua emanez, zuzendaritzako kideren bati.

Ausolagun, jangelako begiraleak:

Honako protokolo hau bete beharko dute. Beraientzako esleitutako termometroarekin tenperatura hartu beharko dute aldagelan, LHko jantokian. Sukarra edukiz gero, >37.5, bai ikastetxea (zuzendaritza edo COVID arduraduna) eta, zein enpresa, jakinaren gainean jarri beharko dute. Ondoren, etxera joan eta enpresak esandakoa bete.

Garbialdi, garbitzaileak:

Honako protokolo hau bete beharko dute. Beraientzako esleitutako termometroarekin tenperatura hartu beharko dute, aldagelan. Sukarra edukiz gero, >37.5, enpresa jakinaren gainean jarri beharko dute. Ondoren, etxera joan eta enpresak esandakoa bete.

7.3. Zer egin ikasleren batek COVID-19 kasuren batekin kontaktua izan duenean?

Ikaslea, familian harreman-estu gisa identifikatutako pertsonekin bizi da:

- Ez du berrogeialdirik egingo, eta, ikastetxera joan behar du.

Ikaslea familian ditu covidekin bateragarriak diren sintomak dituztenak (diagnostikoaren zain)

- Ez da ikastetxera joan behar proba berretsi arte. Negatiboa bada, ez dute berrogeialdirik egin behar, eta ez da aparteko neurririk hartu behar.

Ikasleak covid-a diagnostikatutako pertsonekin harreman estua du:

Ez da ikastetxera joan behar berrogeialdian dagoen bitartean. Absenziaren berri emango zaio zentroko zuzendaritzari.

Jakinarazpena zentroan dagoen bitartean egiten bada lehenbailehen eraman behar da etxera. Edozein arrazoia dela eta, ezin badu zentroa utzi, isolamendu-gelara eraman

7.4. Zer egin kasu bat baieztatzen denean?

Ikaslea denean:

-Zuzendaritzak edo COVID arduradunak gure ESirekin jarriko da harremanetan: Miren Bittori Lasa Goñi.

Irakaslea denean:

- Laneko arrisku-prebentzioko zerbitzuarekin harremanetan jarri.

7.5. Bereziki sentikorrek diren langileen balorazioa (TES).

Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko (LAPZ) lan-osasuneko langileek ebaluatzen dute langilearen egoera, zaugarria eta arriskuarekiko bereziki sentikorra, Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuetarako jarduera-prozedurarekin bat etorriz (2020ko apirilaren 30a). Horretarako, ezinbestekoa da arriskua balioestea, benetako lan-egoerari eta prebentzio-neurriei dagokienez. Langileak bere familia-medikuaren edo espezialisten txostenak aurkeztuko ditu, patologia kronikoa egiaztatzen dutenak edo Covid 19arekiko kalteberatasuna adierazten dutenak. Posta elektronikoz bidez bidaliko du, helbide honetara: prebentziohezkuntza@euskadi.eus.

Lau irakasle ditugu profila hori betetzen dutenak:

Bat, Musikako irakaslea (gaixotasun kroniko larria).

Hiru, 60 urtetik gorakoak (Pta bat eta bi tutore)

Ikastetxeko zuzendaritza, kasu guztietan, harremanetan jarriko da Saileko Prebentzio Zerbitzuko oinarritzko osasun-unitatearekin (SPRL), dagokion protokoloa hasteko eta haren jarraibideak betetzeko.

B) 2. AGERTOKIA: MISTOA (On line + PRESENTZIALA)

EMAN DAITEZKEEN EGOERAK	FAMILIEKIN ZEIN IKASLEEKIN KOMUNIKAZIOA	PROGRAMAZIOA	EGOERA LEGALA
IRAKASLEA COVID (+)	Zuzendaritza Ordezkoa	Bi asteko, gelako programazioaren egokitzapena, ordezkoaren eskura egon behar du, baita ikasketa buruaren eskura.	Gaixotasuna.
IKASLEA COVID (+)	Tutorea	Familiarekin jarraipena egin.	Gaixotasuna.
IKASLEA COVID (-) KONFINATUA	Tutorea	Bi asterako egin den programazioa erabili.	Ez da gaixotasuna
IKASLEAK (-) ETA IRAKASLEA KONFINATUTA DAUDE (-)	Zuzendaritza Tutorea: <u>HHn</u> : Konfinamenduaren 1. egunean emaila. 2. egunean dei telefonikoa, familia guztiei. Bigarren astean, video-dei bat. <u>LHn</u> : Konfinamenduaren 1. egunean emaila. 2. egunean dei telefonikoa, familia guztiei. 3. egunetik aurrera, bideodeia ikasle guztiekin Laguntza-taldea: Ikaslearen beharra/kasuaren arabera. Gurasoekin harremana email edo telefono bidez. Ikasleekin, egokitzapenaren arabera (gutxienez astean bitan)	Bi asteko, gelako programazioaren egokitzapena. Sitesak erabili Laguntza taldea: Tutoreek prestatutako bi astetako programazioak ikaslearen beharretara egokitu.	Baja prebentiboa

2. agertokian egonez gero, gelen edukiera mugatu beharra egon daiteke, eta ikastetxeetako espazio alternatiboak erabiliko dira.

Aurrez aurreko jarduerarako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen lehentasuna dela eta, hurbileko beste ikastetxe batzuetako espazioen erabilera koordinatu ahal izango litzateke, horietan presentzialtasunik ez balego.

Ikastetxeko espazio guztiak kontuan hartuko dira aurrez aurreko hezkuntza-jardueraren garapena antolatzeko (musika-gela, ingeles-gela, erabilera anitzak, biblioteka, gimnasioa eta abar).

2. agertoki horretan, ikasle kalteberenen eta/edo zailtasun gehien dituztenen presentzialtasuna ere lehenetsiko da, eta lehentasuna emango zaie INE indize

Halaber, taldeen arteko harremanak mugatze aldera, espazioak **konpartimentuetan zatitzeko** aukera azter daiteke **2. agertokiaren** barruan: hau da, ikasgela txikiagoak sortuko lirateke espazio handienetan (esaterako, gimnasio edo areto nagusietan).

C) 3. AGERTOKIA: KONFINAMENDUA, TELELANA ETA TELEIKASKETA.

FAMILIEKIN KOMUNIKAZIOA IKASLEAK	PROGRAMAZIOA	EGOERA LEGALA	NON EGONGO DIRA? NORK EDUKIKO PROGRAMAZIOAK?
<p>Zuzendaritza. <u>HHn:</u> Konfinamenduaren 1. egunean emaila. 2. egunean dei telefonikoa, familia guztiei. Bigarren astean, video-dei bat. Geletan azpitaldeak egin, eta, gutxienez video-dei bat ikasleekin eta, familiekin.</p> <p><u>LHn:</u> Tutoreak egunean behin gelako ikasleekin Ingeleseko irakasleak, bideodeiak astean bitan, gutxienez. Beste espezialistak (soinketa, PT, musika...), gutxienez astean behin.</p> <p>Laguntza Taldea: Ikaslearen beharra/kasuaren arabera. Gurasoekin email/telefono bidez. Ikasleekin, egokitzapenaren arabera (gutxienez astean bitan, gehienez egunero)</p>	<p>Curriculumaren funtsezko alderdiak, dokumentuan oinarritutako programazioak.</p> <p>Sitesak erabili.</p>	<p>Baja prebentiboa</p> <p>Gaixotasuna</p>	<p>Tutoreak Driven.</p> <p>Ikasketa buruak</p>

ERANSKINAK / ANEXOS

1 ERANSKINA ANEXO 1

- **Zirkulazio-fluxua** *Flujos de circulación*
- **Simulakroa egiteko pausuak** *Pasos para realizar la simulación.*

2 ERANSKINA ANEXO 2

- **Zerrendak** *Listados*
 - **Gela bakoitzeko ikasleak eta talde-burbuilak** *Relación de alumn@s por clase y grupos burbuja.*
 - **Tutoreak eta espezialistak (Laguntza Zerbitzua barne) gelaz-gela** **Tutor/a y especialistas** *(incluyendo a los profesionales de Equipo de Apoyo) clase por clase*
 - **Hezkuntzak bidaltzen dituen baliabide pertsonalak (Bidelaguna,** *Recursos personales que corresponden a la Delegación de Educación*
 - **Enpresa ezberdinen bitartez (Ausolagun eta Garbialdi) ikastetxera egunero etortzen diren baliabide pertsonalak** *Recursos personales que acude por medio de diferentes empresas (Ausolagun y Garbialdi)*
 - **Autobuseko begiraleak eta atezaina**

3 ERANSKINA ANEXO 3

- **Autobuseko ikasleen kokapen finkoa eserlekuetan** *Atribución de asientos del autobus para cada alumno-a*